



Udazkeneko txapelketa 2023-2024

7ko futbola

Jokalekua: Claret Askartza Polikiroldegia - Sarriena 173, 48940 LEIOA (BIZKAIA)

TXAPELKETAKO ARAUAK

- San Inazioko Kiroldegiko futbol zelaian jokatu da. **Belar artifizialeko zelaia denez, debekatuta dago tako metalikoak erabiltzea;** gomazko takoak edo kirol zapatilak baino ezin dira erabili. Debekatuta dago erretzea eta edari alkoholdunak eramatea.
- Taldeek** garaiz iritsi behar dute instalazioetara. Denek batera sartu behar dute instalazioetara, gutxienez partida hasi baino **15 minutu** lehenago. **Partidak hasteko ordua ezingo da 10 minutu baino gehiago atzeratu.** Denbora tarte hori igaro ondoren, aurkeztu ez den taldeari galdutzat emango zaio partida.
Partida bat hasteko, **taldeek 7 jokalarik izan beharko dituzte gutxienez (zelaiko 6 jokalarik eta atezain bat izan beharko ditu gutxienez, eta gehienez 12)**
- Instalaziora iristean **derrigorrezkoa da arbitro taldeari NANA eta Unibertsitateko txartela aurkeztea.** Aurkezten ez dituztenek EZINGO DUTE TXAPELKETAKO EGUNETAN JOKATU.
- Jantzia:** Atezainen kamiseta bi taldeek daramatena ez bezalakoa izango da. Arbitroen lana errazteko, taldeek eraman behar izango dituzte 2 kamiseta, bat argia eta beste bat iluna.
- DERRIGORREZKOA:** talde bakoitzak 11ko futboleko bere baloia eramatea, berotzeko, eta beharrezkoa balitz, partida jokatzeko.
- Partiden iraupena: Multzoka Fasea:** izena eman duten taldeak multzoka banatuta egongo dira. Multzo bakoitzean liga bat jokatu da 15' minutuko denbora bateko partidutan. **Multzo bakoitzeko lehenengoa sailkatuko da,** geroago txapeladunen arteko liga bat jokatzeko. partiduak 15' minutuko denbora batekoak izango dira. **Denborak aldatu daitezke talde kopuruaren arabera.**
- ARBITROAK: arbitroa ez agertzea ez da aitzakia izango partida bertan behera uzteko edo atzeratzeko.** Horren ordez, ordezkariek ados jarriko dira arbitratzeko, eta emaitza balioduna izango da sailkapenerako. Gainera, partida amaitu eta 24 orduko epean partidara bertaratutako izen-abizenak, NANA eta partidaren emaitza idatzi beharko dira orri batean eta Kirol Zerbitzuari bidali (**bikirolak@ehu.eus** helbide elektronikora edo eskura). Orri hori berandu bidaltzen bada, arrazoirik gabe, partida galdutzat emango da bi taldeentzat.
- Talde bat ez bada partida batera agertzen, galdutzat emango zaio partida, 6-0 emaitzarekin, eta, horrez gain, puntuak eta kredituak galduko ditu (Lehiaketa Batzordeak berretsiko du zehapena). Bigarren aldiz gertatuz gero, taldea txapelketatik kanpo geldituko da.
- Berdinketan amaitzen diren partidetan, 3 penaltiko itzuli bat egingo da, eta berdinketa desegiten ez bada, txandakako jaurtiketak egingo dira (tie-break) berdinketa desegiteko.
- Aldaketak libreak izango dira, baina baloia geldirik dagoenean eta arbitroaren baimenarekin egin beharko dira.
- Txartelak:** Horia: jokalarik batek jarrera desegoki edo iraingarri bat izaten badu, aldi baterako kanporatuko da (2 minutu). *Bi txartel jasoz gero, partida horretatik eta hurrengotik kanporatuko da. Beste jokalarik bat sartu ahal izango da kanporatutakoa ordezkatzeko. Gorria: jokalarik batek txartel gorria jasoz gero, bi partidetatik edo txapelketatik kanporatuko da, eta ezingo da ordezkatu.
- Jaurtiketa libre zuzen eta zeharkakoetan, hesiak baloitik 6 metrora egongo dira. Area barruan baino ez da existituko jokoz kanpo.
- RFEFren 7ko Futboleko Arautegi Ofiziala aplikatuko da, lehen adierazitako puntuetan izan ezik.
- Jokalariek ezin dute eraman aurkako jokalarik batentzat arriskutsuak izan daitezkeen objekturik (kateak, erlojuak, eraztunak, belarritakoak, piercingak...). Ezin badira kendu, esparatrapuarekin edo antzeko zerbaitekin estaliko dira.
- Kredituak Aitortzeko Eskaera:** banan-banan egingo da. Hauxe da esteka: <https://cutt.ly/4RXcyxE>

16. **OSO GARRANTZITSUA:** partida amaitzean, talde bakoitzeko kapitainak edo ordezkariak partida bakoitzaren **akta berrikusi eta sinatu behar du DERRIGOR**, emaitza eta jokalarien zerrenda egiaztatu ahal izateko. Idatzi horren aurka **alegazioa** aurkeztu ahal izango da, idatziz. Partida amaitu eta 10 minutura gertatzen den edozer **ez da aintzat hartuko**.

17. **Lehiaketa Antolatzeko eta Kontrolatzeko Batzordeak eskubidea izango du norbaiti zehapena ezarri eta txapelketatik kanporatzeko, kirol instalazioetan kirolari ez dagozkion jarrera eta gizalegezkoa ez den jarrera desegokia izanez gero. ANTOLAKUNTZAK ESKUBIDEA DU TXAPELKETAN ZEHAR ARAUAK ALDATZECO, BERTAN SORTZEN DIREN EGOERETARA EGOKITUZ. PARTE HARTZAILEEK, IZENA EMATEAN, ARAU HAUEK ONARTZEN DITUZTE ETA BEHARTUTA DAUDE ARAUOK BETETZERA.**